



camino
escena
norte

camín
escena
norte

camino
escena
norte

ipar
eszena
bidea

ZER DA KONSTELAZIOEN IBILBIDEA, IPAR ESZENA BIDEA PROIEKTUAREN BARRUAN?

Ipar Eszena Bidea arte eszenikoen bidez kultura trukatzeko proiektua da, eta bere asmoa da Errioxako, Nafarroako, Euskadiko, Kantabriako, Asturiasko eta Galiziako kultura-ekoizpena konektatzea, Donejakue bideen ibilbideak erreferentzia eta hari gidari moduan hartuta, ibilbide horiek kontaktuan jartzen baitituzte 6 lurralde horiek. Hartara, lurralde horien gainean kultura-lurralde komun bat sortu nahi dugu, harreman arin eta naturala izango duena kultura-trukean eta -harremanean gure sektore eszenikoen artean, orain arte existitzen ez zen harremana.

Ipar Eszena Bidea **ESCENA GALEGA** (Galizia), **ESCENASTURIAS** (Asturias), **ACEPAE** (Kantabria), **ESKENA** (Euskadi), **ESNA** (Nafarroa) eta **AESCENA** (Errioxa), arte eszenikoen produkzio-etxeen entitate profesionalek sustatutako proiektua da.

Ipar Eszena Bidea proiektuak bi ardatz nagusitan egituratzen du bere programazioa.

Batetik, **Konstelazioen Ibilbidea** dugu, proiektuaren bizkarrezurra eta proposamenaren ardatz nagusia. Antzerki, dantza, ilusionismoA eta zirku berriaren emanaldien ibilbidea da. Trukean oinarrituta dago, erkidegoetako bateko ekoizpenek proiektuan inplikaturako beste erkidegoetako espazio desberdinetan egingo dute bira.

GALIZIAko konpainiak Asturias, Kantabria, Euskadi, Nafarroa eta Errioxan arituko lirateke.

ASTURIASko konpainiak Galizia, Kantabria, Euskadi, Nafarroa eta Errioxan arituko lirateke.

KANTABRIAko konpainiak Galizia, Asturias, Euskadi, Nafarroa eta Errioxan arituko lirateke.

EUSKADIko konpainiak Galizia, Asturias, Kantabria, Nafarroa eta Errioxan arituko lirateke.

NAFARROAko konpainiak Galizia, Asturias, Kantabria, Euskadi eta Errioxan arituko lirateke.

PROMOVE / PROMUEVE / SUSTATZAILEAK:



www.escenanorte.com





camino
escena
norte

camín
escena
norte

camino
escena
norte

ipar
eszena
bidea

ERRIOXAko konpainiak Galizia, Asturias, Kantabria, Euskadi eta Nafarroan arituko lirateke.

Ikuskizunak hautatzeko irizpideak batetik, kalitatean, eta, bestetik, lengoaia eta estetiken aniztasun eta balio kulturalen oinarrituko dira. Bide berri honen bitartez lotuko ditugun lurraldeetako arte eszenikoetatik onena ikusteko eta erakusteko asmoarekin sortu da proiektua. **Ipar Eszena Bidearen** programazio eszenikoa, horrenbestez, orokorra izango da, eta ahalegina egingo da edizio bakoitzean ikuskizunen eskaintza anitza izan dadin, haur zein familiei eta helduei zuzendutakoa, hainbat diziplina, lengoaia eta estetikarekin.

Bestetik, **Hedatutako Bidean** biltzen dira ikuskizun eta emanaldien ibilbide horrekin batera doazen jarduera guztiak, eta horrela testuinguru bat sortzen da zenbait eremutan —parte-hartzea, ikusleekiko harremana, kulturartekotasunaren sustapena edo sinergia profesionalak— topaketa, eztabaida, tailer profesionalekin edo trukean oinarritutako egoitza artistikoen programa batekin.

2026ean, **Ipar Eszena Bidea** proiektuak irailaren 18a, ostirala, eta azaroaren 29a, igandea, artean garatuko du programazio ofiziala. **Konstelazioen Ibilbidea** jarduerako ikuskizunak programatzeko egun baliodunak direla-eta, ostegunetik igandera bitartekoak izango dira.

Proiektuari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, www.escenanorte.com webgunea edo @escenanorte sare sozialak kontsultatu ahal dira.

Ikuskizunak **Konstelazioen Ibilbidea** jardueran inskribatzearekin lotutako zalantzak argitzeko, info@escenanorte.com helbide elektronikoa erabilgarri egongo da, 10:00etatik 18:00etarako ordutegian (astelehenetik ostiralera). Zalantzei eta galderei gehienez ere 24 orduko epean erantzun zuzena jasotzen direnetik.

PROMOVE / PROMUEVE / SUSTATZAILEAK:



www.escenanorte.com





camino
escena
norte

camín
escena
norte

camino
escena
norte

ipar
eszena
bidea

IPAR ESZENA BIDEA 2026EKO KONSTELAZIOEN IBILBIDEAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK

1. Konpainia bakoitzak ikuskizun bat (1) aurkeztu ahal izango du. Ez da aintzat hartuko haren estreinaldi-data. Halaber, estreinatu ez diren ikuskizunak aurkeztu ahal izango dira, baldin eta gehitu ahal bada ekoizpena baloratu ahal izateko informazio nahikoa eta materiala. Proposamenaren bideo oso bat aurkeztu beharko da nahitaez. Gutxieneko iraupena 30 minutukoa izango da. Programazioa soil-soilik eta berariaz arlo profesionalean aritzen diren konpainien/ekoiztetxeen ikuskizunei dago zabalik, eta proiektuan inplikaturik dauden 6 erkidegoetako batean dutenei helbide soziala, era berean garatuta beren ohiko lan profesionala lurralde horietan. Halaber, ezin izango da materialik aurkeztu deialdian ezarritako epeetatik kanpo.

2. Programazioan presentzia orekatua izango dute lengoaia eszenikoek eta formatuek arte eszenikoetako ikuskizunen giltzarrien barnean (klasikoa, garaikidea, dantza, testu-antzerkia, zirku berria, ilusionismoa, pertsona bakarreko ikuskizunak, haurrentzako antzerkia, helduentzako antzerkia...), azkenean parte hartzen duten ekoizpenen ezaugarriak kontuan hartuta betiere. Proiektuaren egungo aurrekontu-esparrua aintzat hartuta, antolatzaileek emanaldi baterako gehieneko muga hau ezartzen dute katxe moduan, baldintza ekonomiko gisa onar daitekeena: 8.000 euro gehi BEZa. Ez da kontuan hartuko soil-soilik musikakoa den ikuskizunik (kontzertuak, abesbatzak, alderdi eszenikoa nagusi ez duten ikuskizunak).

Diseinu teknikoa CENek proposatutako tokien gaitasun eta edukiera desberdinetara egokitzeko aukera eduki beharko dute konpainiek.

Salbuespenezko kasuetan, hornidura gehigarri bat baloratu ahal izango da, fitxa tekniko handiagoa eskatzen duten berariazko kasuetarako.

3. Lehen puntuan aipatutako baldintzak betetzen dituzten sektoreko konpainia guztiei zabalik badago ere proiektua, 6 talde sustatzaileen bazkide diren konpainien ikuskizunen presentzia ziurtatuta egongo da programazioan, - ESCENA GALEGA (Galizia), ESCENASTURIAS (Asturias), ACEPAE (Kantabria), ESKENA (Euskadi), ESNA (Nafarroa) eta AESCENA (Errioxa).

PROMOVE / PROMUEVE / SUSTATZAILEAK:



www.escenanorte.com





camino
escena
norte

camín
escena
norte

camino
escena
norte

ipar
eszena
bidea

4. Konstelazioen Ibilbidea jarduerako espazioak direla-eta, 6 erkidegoetan errolda batean ari gara lanean, non italiar erako espazioen gehiengo presentzia ziurtatzen den (antzokiak, auditoriumak), baina baita ohikoak ez diren espazioena ere (kanpoaldeak, ondare-arloko espazioak). Azken horiek, hain zuzen, ikuskizunak garatu ahal izateko beharrezkoa den ekoizpen teknika edukiko dute.

5. Programan parte hartzen duten erkidegoetan ofizialak diren edo dauden 4 hizkuntzetako edozeinetan egindako ikuskizunarekin parte hartu ahal izango dute konpainiek –galiziera, asturiera, gaztelania eta euskara–, eta bai bi hizkuntzatan dagoen ikuskizun batekin ere (adibidez, euskaraz eta gaztelaniaz, konpainiak ikuskizunaren bi bertsioak baditu). Edonola ere, ekoizpena hizkuntza batean edo beste batean aurkeztea ez da ez abantaila ez desabantaila izango hautatua izateko orduan.

6. Ikuskizunak galizieraz, asturieraz edo euskaraz aurkeztuz gero, eta hautaketa prozesuaren ezaugarriak direla medio, konpainiei, posible den neurrian, materialen testuak gaztelaniaz ere aurkezteko eskatuko zaie, baita bideoak hizkuntza horretan azpidatzita aurkezteko ere (ikusi hautaketa prozesua 10. puntuan)

7. Era berean, eta nahiz eta deialdiari buruzko informazioa eta izena emateko orriak galizieraz, asturieraz, gaztelaniaz eta euskaraz egon, konpainiei erregutzen zaie informazioa gaztelaniaz betetzeko (ikusi hautaketa prozesua 10. puntuan)

8. Galegozko, asturierazko edo euskarazko ikuskizunak hautatuko balira, emanaldietan bitartekari tekniko bat txerta liteke, piezen itzulpen edo azpitituluen bitartez, eta erakundeak horren gainean jardungo luke espazioen ezaugarri eta aukeren arabera. Kasu horretan, konpainiari kolaboratzeko eskatuko zaio, testuak ekarri, eta itzultzeko zein azpitituluak jartzeko prozesuan sor litekeen beste edozein zalantza edo galderari erantzunez.

9. Ipar Eszena Bidea proiektuak ibilbidean konpainia berberaren emanaldiak antolatzeko estrategia jasangarri bat garatzean jartzen du ahalegina, eta, hartara, programazioa egitean, ahal den neurrian, emanaldi horiek multzokatzen saiatuko da datei eta eremu geografikoari dagokienez, konpainiek libre dituzten

PROMOVE / PROMUEVE / SUSTATZAILEAK:



www.escenanorte.com





camino
escena
norte

camín
escena
norte

camino
escena
norte

ipar
eszena
bidea

datak kontuan hartuta eta bai programazioaren egituran aintzat hartu beharreko antolaketako eta ekoizpeneko alderdi desberdinak kontuan hartuta ere.

10. 2 batzorde profesionalek hautatuko dituzte ikuskizunak. Batzorde horiek adituek osatuko dituzte (programatzaileak, kritikaren arloko profesionalak, arte eszenikoen arloko kultura-erakundeen ordezkariak, sektoreko profesional independenteak, Arte Dramatikoko Goi Mailako Eskoletako irakasleak...), eta beren erkidegoa ez den beste erkidego batzuetatik aurkeztutako ikuskizunei buruz erabakiko dute. 2026 honetan, bi batzorde profesional horiek honela eratuta egongo dira: bata Galiziako, Asturiasko eta Kantabriako agenteek osatuko dute, Euskaditik, Nafarroatik eta Errioxatik aurkeztutako proposamenen gainean erabakitzeke; eta bestea Euskadiko, Nafarroako eta Errioxako agenteek osatuko dute, Galiziatik, Asturiastik eta Kantabriatik aurkeztutako proposamenen gainean erabakitzeke.

11. 2 batzorde horietako bakoitza 6 pertsonak osatuko dute, profil eta esperientzia desberdinak dituztenak sektore mailan. Haietako bakoitzaren osaera hau izango da: programazio eszenikoko 3 profesional ariko dira, eta haien barnean sartuta egongo dira batzordea eratzen duten 3 erkidegoetako Ipar Eszena Bidea proiektuko udal-egoitzak, eta sektoreko beste 3 profesional, esperientzia eta profil profesional desberdinetakoak.

12. Batzorde edo komisiio profesionalek erkidego bakoitzeko sei (6) ikuskizunen bateria bat erabakiko dute, eta ikuskizun horiek hurrenkera korrelatiborik gabe aukeratuko dira eta **Ipar Eszena Bidea proiektuko Ikuskizun Gomendatuen Katalogoa** eratuko dute. Hartara, guztira, hogeita hamasei (36) proposamen izango dira eta denei **Ipar Eszena Bidea Ikuskizun Gomendatua** zigilua emango zaie. Bi alderdi horiek kalitateko marka izango dira, proiektuaren esparrutik kanpo sustatzeko eta banatzeko laguntzeko balioko duena. Katalogo hori formatu digitalean editatuko da, eta proiektuko erkidegoetako programazio-arloko profesionalen eta Estatuko gainerako tokietako profesional hautatu batzuei helaraziko zaie.

13. Katalogoaren barnean dauden ikuskizunen artetik aukeratuta, behin betiko programazioa eta **Konstelazioen Ibilbidea** jarduerako hemezortzi (18) ikuskizunen hautaketa (3 erkidego bakoitzeko) diseinatuko dira, alderdi edo irizpide hauek aintzat hartuta: lengoaien eta estetikaren dibertsitatea,

PROMOVE / PROMUEVE / SUSTATZAILEAK:



www.escenanorte.com





camino
escena
norte

camín
escena
norte

camino
escena
norte

ipar
eszena
bidea

aurrekontu-egokitzea, proposamenaren zentzua programazio osoaren barnean, produkzio-beharrak edo konpainiek eta bai egoitza izango diren espazioek ere datak libre edukitzea. Ibilbidea diseinatzea, horrenbestez, egoitza izango diren guneen eta **Ipar Eszena Bidea** proiektuaren antolatzaileen arteko programazio-elkarlana izango da. Ikuskizunak programatzeko egun baliodunak ostegunetik igandera bitartekoak izango dira, 2026ko irailaren 18a, ostirala, eta azaroaren 29a, igandea, artean.

14. 2026eko **Konstelazioen Ibilbidea** jarduerarako ikuskizunak hautatzeko prozesuaren egutegia hau izango da:

Otsailaren 5etik, osteguna, 16ra, astelehena _ Ikuskizunen izena emateko deialdia.

Martxoaren 30ean, astelehena _ Katalogorako ikuskizun-hautaketa iragartzea eta bilera-agiriak bidaltzea.

Apirilaren 30ean, osteguna _ Katalogoa argitaratzea eta programazioaren arloko profesionalei bidaltzea. Konstelazioen Ibilbidea jardueraren programazio ofizialean bira egiteko behin betiko hautatutako 18 ikuskizunak iragartzea.

15. Aukeratutako konpainiek programa zabaltzen laguntzeko eta komunikatzeko edukiak sortzeko konpromisoa hartzen dute (irudiak, hashtag-en irudiak), **Ipar Eszena Bideko** komunikazio taldearekin harremanetan jarrita.

16. Hautatzen diren konpainiek, halaber, ikuskizunen inguruko akonpainamendu-jardueretan (aurretiko tailerrak, debateak, emanaldien ondorengoak) parte hartzeko konpromisoa hartuko dute, betiere emanaldien datetan eta kontuan hartuta muntatzeko, desmuntatzeko, prestatzeko eta taldeek atsedean hartzeko denborak eta beharrak. Konpainiari proposatzen bazaio berariazko bitartekotza-jarduera bat, aurretik prestatzea eskatzen duena (adibidez, tailer bat), emanaldiarengatik ordainduko denetik aparte ordainduko da.

17. Erkidego bakoitzaren barnean indarrean dauden hitzarmen kolektiboek ezartzen dituzten esparruen barnean jarduteko konpromisoa hartu behar dute hautatutako konpainiek, eta bai sektoreko dinamiken funtzionamendu zuzena babesten duen autonomia- eta/edo estatu-mailan aplikagarria den beste edozein arauk ezartzen dituen esparruen barnean. Hautatutako konpainien kasuan, konpromiso hori berariaz islatuko da konpainien eta erakunde antolatzailearen arteko kontratu-harremanean.

PROMOVE / PROMUEVE / SUSTATZAILEAK:



www.escenanorte.com





camino
escena
norte

camín
escena
norte

camino
escena
norte

ipar
eszena
bidea

18. Aurretiko hautaketan sartzen diren konpainiek programazio ofizialaren denbora-esparruan data libre nahikoak edukitzeko konpromisoa hartzen dute, antolatzaileek ikuskizun bakoitzaren zenbait emanaldiko bira bat antolatu ahal izateko moduan. Proiektuaren beharrekin bat datorren data libreen gutxieneko kopuru bat ez bada edukitzen, antolatzaileek bere egiten dute konpainia hori azken hautaketarako kontuan ez izateko eskubidea.

19. Aurkeztutako proposamen guztiek parte-hartze oinarri hauetan ezarrita dagoena betetzen dutela ziurtatzeko beharrezkoak diren dokumentu eta informazio osagarri guztiak eskatzeko eskubidea bere egiten du ***Ipar Eszena Bidea*** proiektuaren zuzendaritzak, bai ikuskizunari berari dagokionean eta bai konpainiaren jardunari dagokionean ere.

20. *Ipar Eszena Bidearen Konstelazioen Ibilbidearen* hautaketa prozesuan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar. DPBLO: Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoko (DPBLO) 5. artikuluari eta 2018ko maiatzaren 25eko indarrean dagoen Europar Batasunaren Datuen Babeserako Erregelamenduari jarraikiz (EBDBE), jakinarazten dizugu zure kontakturako datuak konfidentzialtasun handienarekin tratatzen ari direla eta kontaktu-fitxategi batean txertatu direla, fitxategi horren arduradun bakarra AIE Ipar Eszena Bidea da. Nahi izanez gero sartze, ezeztatze edo aurkaritza eskubideak erabili ditzakezu info@escenanorte.com helbidera posta elektronikoko bat bidalita.

PROMOVE / PROMUEVE / SUSTATZAILEAK:



www.escenanorte.com

